

oinarrizko osagaiak

SARRERA

Korporazio-identitateko eskuliburu hau tresna erabilgarri gisa azaltzen da, batez ere, “Bermeo Udala” marka osatzen duten osagai buruzko informazio argia eta zehatza eskuratu nahi duten profesionalentzat.

Horrez gain, aipatutako eskuliburuak marka euskarri inprimatuetan nahiz elektronikoetan erabiltzearen ondorioz sor daitezkeen zalantzei erantzuteko ahaleginak ere egiten ditu.

Nahitaezkoa da eskuliburu horretan islatzen diren arauak zehatz-mehatz betetzea, markaren irudia ez itxuraldatzeko eta berarekin gauzatutako osagai guztiak bateratzeko.

Markaren xedea, Bermeoko udalerrian oinarritzkoa eta adierazgarria den aspekturen baten isla zehatza izatea da.

Arazoi horren ondorioz, aipatutako udalerrriaren logotipo adierazgarriak Bermeorekin oso lotuta dagoen osagai batean du oinarria; herriko portuan dagoen estatuan, alegia. Estatua horrek, Bermeo Europa barruan zegoen portur ik nagusienetariko bat bihurtu zuen itsas espiritua eta arrantzarako ohitura azaltzen du.

Arraunar en ondoan dagoen nabigatzailearen burua sintetizatu egin da multzo soil, eta erreproduzitzeko erraza izateko helburuarekin, baita modu azkar eta irmoan komunikatzeko helburuarekin ere.

oinarrizko osagaiak


1. IKURRA

Turismorako eta arrantzarako joera bikaina duen herria, berari zegokion logotipo batean islatu behar zen. Modu horretan, portuan dagoen monumentua kontzeptu bien lagin zehatza dugu.

Orrialde honetan erakusten den bezala, estatuaren bustoa logotipoaren oinarri gisa erabili da. Lerroak sinplifikatu egin dira, komunikazioa zuzenagoa, sinpleagoa eta irmoagoa izan dadin.

Aipatutako marka buruan lerro bat eginda osatzen da, sinboloa definitzen duten masak modu formalean konpentsatzeko; horrela, aldi berean “kaleen” nahiz kanalen sare bat eratzen da, eta, ondorioz, Bermeoren irudia berebiziko garrantzia duen itsas portu gisa indartuko da.

Sinboloaren irmotasunak, denbora iragatearen ondorioz, bere kabuz antolatzea ahalbidetuko du; ondorenez, modu autonomoan jardungo du.



Logotipoa erakundea izendatzen duen ahozko formaren tratamendu grafikoa da. Ahozko zeinua da, eta identifikazioa pertsonalizatzen duen tipografia bereizgarriaren tratamendua ematen zaio.

Esku artean dugun kasuan, Bermeoko Udala izendapenarekin egiten da lan.

Aukeratu den tipoa Macintoshen “Chriz-Plain” da. Keinuzko tipoa nahi izan da, bereziki eskuz gauzatutakoa; hala ere, tipo hori aukeratu zen normalizatua izateagatik eta alfabeto guztia eskuragarri

izateagatik, etorkizuneko erakunde-erabileretarako (afitxak, foiletoak, errotuluak, etab.).

Logotipoaren eskala aldatzen denean letren eta lerroen arteko espazioaren proportzioa errespetatu behar da, baita tipografia nagusia ere; kasu horretan, tipografia horren ordez inoiz ezin izango da beste bat erabili.

Logotipoa erreproduzitzeko kolorea Pantone® 302 urdina da, baldin eta zuzeneko kolorearen eta ondorengo ehunekoen bidez erreproduzitzen bada (cyanen %100, magentaren %25, aloren %0 eta beltzaren %50), eta

BERMEOKO UDALA

oinarrizko osagaiak

3. MARKA

Markak barnean hartzen ditu sinbologia eta logotipoa, eta, multzo grafiko osotua eta bereizlea da.

Bertsio nagusia orrialde honetan erakutsitakoa da. Marka osatzen duten osagaien arteko proportzioak eta tartek zehatz-mehatz errespetatu behar dira. Markak hartzen dituen koloreen artean, logotipoari

302 urdina aplikatuko zaio (tipografia), eta, sinboloari, aldiz, beltza.

Sinboloaren eta logotipoaren arteko multzoa beti formatu –zeharkakoa– horrekin errespetatu behar da; ez da aurreikusten tipografiaren gain sinbologia jartzearen ondoriozko antolaketaerik.



oinarrizko osagaiak



- 3. MARKA
- 3.1. Sare eraikitzailea



Nagusia

Marka osatzen duten osagaiak modu geometrikoan eraikitzen ez direnez gero, lagungarria izan daitekeen sare bat ezartzen da, erreferentziako artxiborik ez dagoenerako. Hala ere, ahal den neurrian, eskuliburu honekin batera dagoen CDaren artxihoak erabili behar dira.

Orrialde honetan aurkeztutako sarea erreferentzia gisa hartu behar da eta markaren gunean sartu ezin deneko espazio fisikoa mugatuko du.




oinarrizko osagaiak

- 3. MARKA
- 3.3. Bertsio negatiboa
- 3.4. Kolorearen aldaketak

Atal honetan, markak izan beharreko kolorearen bertsioak proposatzen dira, baldin eta marka hori zein hondotan erreproduzitu eta hondo hori zuria ez bada.

Ondorengo lau aukera hauek onartzen dira, eta eskuliburu honetan jasotzen ez diren gainerako guztiak baztertu egiten dira.



Negatiboa hondo beltzaren gainean

Marka hondo beltz edota balio kromatiko oso ilunak dituen baten gainean erreproduzitu behar denean, markaren bertsio nagusia osatzen duten koloreetatik bat aldatu beharko da, betiere sorta kromatik o nagusia errespetatuz. Horrela, “Bermeoko Udala” testua 302 urdinean erreproduzitu da, eta, sinbola, aldiz, %60ko beltzean.



Negatiboa pantone 302 hondoaren gainean

Marka hondo urdin edo antzeko balio kromatikoen gain erreproduzitu behar denean, markaren bertsio nagusia osatzen duten koloreetatik bat aldatu beharko da, betiere sorta kromatiko nagusia errespetatuz. Horrela, “Bermeoko Udala” testua zuriaren bidez erreproduzitu da.



Negatiboa %70eko black hondoaren gainean

Marka hondo gris edo antzeko balio kromatikoen gainean erreproduzitu behar denean, markaren bertsio nagusia osatzen duten koloreetatik bat aldatu beharko da, betiere sorta kromatiko nagusia errespetatuz. Horrela, “Bermeoko Udala” testua zuriaren bidez erreproduzitu da.



Negatiboa hondo beltzaren gainean

Marka hondo beltz edo antzeko balio kromatikoen gainean erreproduzitu behar denean, markaren bertsio nagusia osatzen duten koloreetatik bat aldatu beharko da, betiere sorta kromatiko nagusia errespetatuz. Horrela, “Bermeoko Udala” testua zuriaren bidez erreproduzitu da.

oinarrizko osagaiak

- 3. MARKA
- 3.5. Bertsio kolore bakarra
Positiboa/negatiboa
- 3.6. Grisean egindako bertsioa
Positiboa/negatiboa

Marka koloreetan erreproduzitu ezin denerako, atal honetan erakusten diren bertsioak erabiliko dira, positiboen eta negatiboen, beltzen edo grisen artean hautatuta, betiere euskarri gisa dagoen hondoaren eta erreprodukzio-sistemaren arabera.



Kolore bakar positiboa



Kolore bakar negatiboa



Gris positiboak

Erabilitako balioak



Beltza %70ean



Beltza %50ean



Gris negatiboak

Erabilitako balioak



Beltza %60ean



Beltza %40ean


oinarrizko osagaiak

- 3. MARKA
- 3.7. Bertsio bateraezinak

Erabilera desegokiak saihesteko helburuarekin, jarraian markaren okerreko zenbait aplikazio erakusten dira. Horiek alde batera utzita, aurreuposatzen da aurreko kapituluetan proposatutako aplikazioetara zehatz-mehatz egokitu ez diren beste guztiak ez direla baliozkoak izango.

- 1- Sinboloaren eta logotipoaren arteko koloreak elkarrekin aldatzea, bai eta osagai biei kolore ezberdinak adjudikatzea ere.

- 2- Sinboloa logotipoaren gainetik jartzea.
- 3- Tipografia lerro batean banatzea.
- 4- Logotipoaren tipografia korporatiboa aldatu edo aldaraztea.
- 5- Sinboloaren proportzioa aldaraztea logotipoari dagokionez.
- 6- Markari dagozkion osagaiak desitxuratu edota eraldatzea.



oinarrizko osagaiak

- 3. MARKA
- 3.8. Murrizketa testa

Marka ulermenaren aldetik alda daiteke erreproduzitzeko gutxieneko tamaina egokia ez denean. Hori dela medio, atal honetan murrizketa testa bat ezartzen da, markaren dimentsioa aldatzen den heinean, markaren osagai ezberdinek duten jokaera egiaztatzeko.

Baimentzen den gutxieneko tamaina orrialde honetan adierazitakoa da, eta marka ezin izango da tamaina hori baino beheragoko batean erreproduzitu.



oinarrizko osagaiak

- 4. TIPOGRAFIA
- 4.1. Tipografia nagusia

Tipografia markari nortasuna ematen dion osagaia dugu. Gisa berean, merkatuan dauden gainerako marketatik bereizteko osagaia ere izan behar da.

Esku artean dugun kasu honetan, Chriz-Plain letra-tipoa hautatu da. Letra-tipo hori logotipoa eratzeko bakarrik erabiliko da; hortaz, ezin izango da erabili markarekin zerikusia duen beste edozein aplikaziotan.

Chriz-Plain

ABCDEFGHIJKLMNOPQRSTUVWXYZ

ABCDEFGHIJKLMNOPQRSTUVWXYZ

1234567890 ? !%&/(*)=+-ç][

oinarrizko osagaiak

- 4. TIPOGRAFIA
- 4.2. Tipografia lagungarria

Univers Condensed Regular

ABCDEFGHIJKLMNOPQRSTUVWXYZ
abcdefghijklmnopqrstuvwxyz

Univers Condensed Oblique

*ABCDEFGHIJKLMNOPQRSTUVWXYZ
abcdefghijklmnopqrstuvwxyz*

Univers Condensed Bold

**ABCDEFGHIJKLMNOPQRSTUVWXYZ
abcdefghijklmnopqrstuvwxyz**

Univers Condensed Bold Oblique

***ABCDEFGHIJKLMNOPQRSTUVWXYZ
abcdefghijklmnopqrstuvwxyz***

Tipografia nagusiak erabilera mugatua duenez gero, tipografia lagungarriak izango ditu; hortaz, Univers Condensed letra-tipoa hautatu da, beraren Regular, Oblique, Bold eta Bold Oblique bertsioetan; hori papertegian eta sustapenerako liburuxkak egiteko erabiliko da, bai eta testu korrituetarako nahiz azpigituluetarako ere.

Aukera bezala, erabiltzailearen sistema operatiboan instalatutako beste letra-tipo bat edo batzuk erabil daitezke, baldin eta proposatutakoaren (Univers) familia

tipografikoari badagokio, esaterako Helvetica Neue Condensed, euren bertsio guztietan (Light, regular, oblique, bold, etab...).

Bi tipografia horiek “Palo Seco” edota “Sin Serif” izeneko taldeetariko batean kokatzen dira; gainera, beste letra-tipo batzuk ere familia horri dagozkio, esaterako Eras, Folio, Frutiger, Franklin Gothic, Futura, Gill edo News Gothic. Letra-tipo horiek (condensed bertsioa) erabili ahal izango dira, lehendabizi Univers, edo, aukera bezala, Helvética deritzotenak ez dauden kasuetan.

Helvética Neue Light Condensed

ABCDEFGHIJKLMNOPQRSTUVWXYZ
abcdefghijklmnopqrstuvwxyz

Helvética Neue Regular Oblique

*ABCDEFGHIJKLMNOPQRSTUVWXYZ
abcdefghijklmnopqrstuvwxyz*

Helvética Neue Bold Condensed

**ABCDEFGHIJKLMNOPQRSTUVWXYZ
abcdefghijklmnopqrstuvwxyz**

Helvética Neue Condensed Bold Oblique

***ABCDEFGHIJKLMNOPQRSTUVWXYZ
abcdefghijklmnopqrstuvwxyz***


oinarrizko osagaiak

- 5. KOLORE SISTEMA
- 5.1 Lehen mailako koloreak
PANTONE® eta Kuartrikromia
RGB eta HTML

Marka erreproduzitzeko kolore nagusiak atal honetan zehaztutakoak dira. PANTONE® sistemak, bere aldetik, arte grafikoetan (offset, serigrafia,...) erabili beharreko inprimaketa-sistemen erreferentziak gidatzen ditu, baldin eta lan-baldintzek markaren erreprodukzioa jatorrizko koloreetan egitea ahalbidetzen badute. Beharrian tekniko edo ekonomikoen ondorioz nahitaezkoa bada marka CMYK kolorearen aukeran erreproduzitzea, horrekin batera dagoen kuartrikromiaren taulako balioak hartuko dira.

Marka euskarri elektronikoetan (cd, dvd,...) edota telebistan erreproduzitzeko, RGB zutabeko balio-taula erabiliko da. Azkenik, marka interneten erreproduzitzeko, HTML balio-taulan izango du oinarri.

Aintzat hartu behar da hemen azaldutako balioak orientagarriak izateaz gain, aldaketa arin batzuk izan ditzaketela, aukeratutako erreprodukzio-sistemaren arabera.



oinarrizko osagaiak

5. KOLORE SISTEMA
5.2. Bigarren mailako koloreak
PANTONE eta kuartikromia
RGB eta HTML

Hemen azaldutako kolore-sorta, sorta nagusiaren osagarri eta lagungarri gisa hartzen da; horrela, biak batera erabili ahal izango dira, baita sortaren balio ezberdinetan ere, kolore bakoitzaren %1etik %100era, alegia.

Kasu horretan, orobat, aurreko atalean kolorea hautatzeko zehaztu diren irizpide berberak aplikatu beharko dira.

